

II. ERANSKINA. DATU PERTSONALAK TRATATZEKO BAIMENA

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da datu pertsonalak Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Baheketa Programa” izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

<p>Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak</p>	<p>Osasun Saila. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.</p> <p>- Donostia kalea, 1 - Gasteiz, 01010</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Datuak Babesteko ordezkaria:</p> <p>- Donostia kalea, 1 – Gasteiz, 01010</p> <p>- DPD-DBO@euskadi.eus</p>
<p>Helburua</p>	<p>Jaioberriaren sortzetiko gaixotasun jakin batzuk aztertzea helburu duen Euskal Autonomia Erkidegoko jaioberrien sortzetiko gaixotasunak bahetzeko programa kudeatu, ebaluatu eta planifikatzea.</p> <p>Osasun publikoko programa bat da, banakakoetan determinatzaile genetiko jakin batzuk identifikatzera bideratua, esku-hartze mediko goiztiar batek determinatzaile horiek in lotutako hilkortasuna, morbiditatea edo ezintasunak ezabatzea edo murriztea ekar baitezake horientzat.</p> <p>Era berean, beharrezkoa izan daiteke analisi genetiko bat egitea material genetikoaren segmentu baten edo batzuen presentzia, absentzia edo aldaerak detektatzeko, eta horren barruan sartzen dira, besteak beste, aldaketa genetiko jakin baten adierazle den produktu geniko edo metabolito espezifiko bat detektatzeko zeharkako probak.</p>
<p>Kontserbazio-epea</p>	<p>Datu pertsonalak dituzten hondakin-laginak bi urtean gordeko dira Osasun Publikoko Laborategian, lagin horiek eskuratu zirenetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, interesdunak Euskal Biobankura bidaltzeko eskatu ahal izango du. Bidalketa hori eskatzen ez bada, hondakin-laginak Osasun Publikoko Laborategian gordetzen jarraituko da, lagin horiek lortu zirenetik bost urteko epea bete arte.</p> <p>Datu pertsonalak anonimizatze baimena ematen bada, hondakin-laginak Euskal Biobankuan gordeko dira. Baimenik ez badago, laginak suntsitu egingo dira 5 urtera, laginak lortu zirenetik zenbatzen hasita.</p>
<p>Legitimazioa</p>	<p>Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.</p> <p>33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa.</p> <p>14/2007 Legea, uztailaren 3koa, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa.</p> <p>Jaioberriaren gurasoen baimena.</p>
<p>Hartzaileak</p>	<p>Anonimizatutako hondakin-laginak Euskal Biobankuan zaintzea eta biltegiratzea.</p>
<p>Eskubideak</p>	<p>Eskubideak: Zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubidea ere.</p>

Ondorioz, aita, ama edo tutore gisa (adierazi dagokiona)

.....jn./and. NANA

BAI	EZ (laginak suntsitu egingo dira)	Baimena ematen dut hondakin-laginak Euskal Biobankuan ikerketa biomedikorako anonimizatu eta gordetzeko.

Seme-alabaren izen-abizenak

Eguna eta lekua:

Sinadura: